

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako kontzejuen gastu arrunt, obra eta jardueretarako udal dirulaguntzen deialdia jasotzen duen 2025eko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 839686.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/839686>).

Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da udalerri honetako kontzejuek 2024an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarrizko zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz egin badira.

Diruz laguntzekoak izango dira udalerri honetako kontzejuek 2024an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko

- Beste laguntza edo deialdi batzuen bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak edo jarduera espezifikoak, diruz lagundu gabeko zatia izan ezik.
- Otorduen, elikagaien eta abarren gastuak.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuek.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2025eko maiatzaren 14an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 177.485,74 euro izango da.

Banaketa irizpideak

a) Zenbateko finkoa (12.629,28 euro), zeina 789,33 euroko banaketa linealari baitagokio; udalerriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontuan izanik kontzejuek osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoaren (162.856,46 euro) ehuneko 60 (97.713,88 euro), zati berdinetan banatuko da udalerriko hamabost kontzejuen artean. Horiek horrela, kontzeju bakoitzak 6.514,25 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40a (65.142,71 euro), proportzioan banatuko da, kontzeju bakoitzak 2025eko urtarrilaren 1ean eroldaturik dituen biztanleen arabera.

d) Aurrekontu aplikazioan jasotako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta kontzeju bakoitzak jaso beharreko gehieneko zenbatekoa gutxitu behar bada aurrekontu partidan auzo konpostajeko jardunbide egokietarako ezarritako zenbatekora doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie kontzeju eskatzaile guztiei.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak eta justifikazio dokumentazioa aurkezteko duten epea 2025eko irailaren 12an bukatuko da.

Erdoña, 2025eko ekainaren 12a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO